Lege-gordailua kudeatzeko laguntza

Online

Izapidetzea guztiz doakoa da, eta honako helbide honen bidez egiten da:
https://depositolegal.navarra.es


Sarbidea ziurtagiri digital baliodun bidez, NAN elektronikoaren bidez edo Cl@ve sistemaren bidez.



Lehenengo urratsa da editore gisa alta eskatzea eta bulegoak baliozkotu arte itxarotea.

Lege Gordailuaren Bulegoak egiaztatzen du editore berriak egoitza edo establezimendu iraunkorra Nafarroan duen, eta alta baliozkotzen du.

Editoreak emandako helbide elektronikoa erabat erabilgarri egotea garrantzi handikoa da, hori baita Nafarroako Lege Gordailuaren Bulegotik datozen komunikazioetarako erabiliko den bidea.



Alta eraginkorra denean, editoreak izapide hauek egiteko aukera ematen duen aplikaziora sartzen da:



Zenbakia eskatu

Eskabideak nahitaez jaso behar ditu argitalpenaren izenburua eta argitalpen-mota, gordailutu beharreko ale-kopurua dokumentu-motaren eta aurreikusitako banaketa-dataren araberakoa baita. Data hori ezin izango da bi hilabete baino geroagokoa izan, zenbakia eskatzen den egunetik zenbatzen hasita

Datuak aldatu eta eskabidea ezeztatu

Lege-gordailuaren zenbaki bati lotutako datuak aldatuz gero, argitalpenari buruzko informazioa osatu ahal izango da inprimatu edo fabrikatu ondoren, betiere gordailua eratu aurretik.

Halaber, lege-gordailuaren zenbaki bat baliogabetu dezake, baldin eta eskatutako argitalpena ez bada egingo, edo zenbakia esleitu eta bi hilabeteko epean gordailua eratzea eragozten duen arrazoiren bat badago.

Gordailua egin izanaren egiaztagiria

Egiaztagiri bat lortzeko aukera ematen du, argitalpen baten lege-gordailua behar bezala entregatu dela justifikatzen duen bulegoak gordailua baliozkotu ondoren.

Aurrez aurre

Nafarroako Lege Gordailuaren Bulegoak ordenagailu bat jartzen du zure esku, lege-gordailua online kudeatzeko. Ez ahaztu identifikazio elektronikoko modu onartutakoren bat ekartzeaz.

Gure jendaurreko ordutegia astelehenetik ostiralera da, 8: 30etik 14: 30era, eta helbide honetan aurki gaitzake:

Nafarroako Lege Gordailuaren Bulegoa. Nafarroako Liburutegia
Antonio Pérez Goyena etorbidea, 3, 2ª solairua
31008 Iruñea
Tfno. 848425680 – 848425682
deplegal@navarra.es